

ONLINE IKASTAROA

'KLIMA KRISIA ETA GIZA ESKUBIDEAK'

2024ko maiatzaren 20tik ekainaren 23ra

UN Etxeak, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren laguntzarekin, onlineko ikastaro hau antolatu du: "Klima krisia eta giza eskubideak". 2024ko maiatzaren 20an hasi eta ekainaren 23a arte eskainiko da eta 30 orduko iraupena izango du.

EZAUGARRI OROKORRAK

- Iraupena:	Maiatzaren 20tik (10:00) ekainaren 23ra (23:59)
- Dedikazio:	30 ordu
- Hizkuntza:	Gaztelania
- Modalitatea:	Online (<i>moodle plataforma</i>)
- Maila:	Ertaina
- Plaza kopurua:	40
- Kostua:	Doakoa
- Aurretiko izen-ematea:	Maiatzaren 13ra arte
- Behin betiko plazen esleipena:	Maiatzaren 15ean
- Aurretiko izen-ematea:	Aurretiko izen-ematea (google.com)
- Informazio gehiago:	n.viota@unetxea.org
- Streaming saioa:	Ekainak 18, 20.00

HELBURUAK

- Klima krisia aipatzen dugunean zeri buruz ari garen ulertzea.
- Klima krisiaren ondorioak eta giza eskubideak estu lotuta daudela identifikatzea.
- Uleretzea klima krisiak ez diela berdin eragiten pertsona guztiei.
- Lankidetzak giza eskubideen eta ingurumenaren alorrean dituen erronkak identifikatzea.

NORENTZAT DA?

- Gizarte zibileko erakundeetako partaideak (profesionalak nahiz boluntarioak), hala nola GGKE-etakoak, giza eskubideen alorrekoak, ingurumenaren alorrekoak, emakumeen alorrekoak, immigrazioaren alorrekoak eta abar.
- Giza eskubideen, garapenerako lankidetzaren eta/edo garapen jasangarriaren alorrean lan egiten duten erakundeetako partaideak, izan erakunde horiek publikoak, pribatuak nahiz akademikoak.
- Ikasleak eta interesa duten gainerako pertsonak.

Ikastaroko parte-hartzaile kopurua 40 lagunekoa izango da gehienez.

EDUKIAK

1. Edukia 4 ataletan banatuko da:
 - a. Sarrera.
 - b. Klima krisia, eta krisi horrek giza eskubideetan duen eragina.
 - c. Klima krisia, giza eskubideak eta talde espezifikoak.
 - d. Lankidetzak.
2. Prestakuntzak **aukerako streaming saio** bat du, **giza eskubideen defendatzaileen kasuan sakontzeko**, Dalila Arguetaren eskutik: **“Giza eskubideak defendatzearen prezioa: inpaktuak gorputz eta lurraldeetan”**.
3. Atal bakoitzak hainbat gai biltzen ditu; guztira 12 gai dira.
4. Atal bakoitzerako material osagarriak proposatzen ditugu. Material batzuk derrigorrezkoak dira; beste batzuk, berriz, hautazkoak dira, eta edukian gehiago sakontzeko balio dute.
5. Atal bakoitzaren amaieran jarduera bat eta test bat egingo dugu.







METODOLOGIA

Modulu bakoitzak honako baliabide pedagogiko hauek biltzen dituen dokumentu bat du:

- **Autoreen edo askotariko erakundearen aipuak.** Lauki berdeetan eta komatxo artean doazelako ezagutuko dituzue.
- **Estekak eta QR kodeak.** Gaiaren edukiaren zati bat baliabideren bati lotuta egongo da, behin baino gehiagotan; besteak beste, bideo, infografia edo plataforma bati lotuta. Eta baliabide horiek lantzen ari garen gaiaren parte esanguratsua izango dira. Pantailan irakurtzen duzuenontzat, zenbait hitzei lotuko diegu esteka, eta hala, nahikoa izango da hitzen gainean klikatzea.

Aldiz, paperean irakurtzen duzuenontzat, QR kodeak gehituko ditugu, zuen gailu mugikorrekin eskaneatuta sar zaituzten. Zenbaitetan, argazki-kameraren bitartez egin daiteke (kodea identifikatzen du eta estekara joan nahi den galdetzen du). Beste batzuetan, ordea, aplikazioa behar da (litekeena da zuen gailuak dagoeneko horretarako aplikazio bat izatea).



- **Informazio nabarmengarria duten laukiak.** Lauki laranjetan, ideia nabarmengarriak jasotzen dira, informazio osagarria edo adibideak dituztela. 
- **“i” hizkia (informazioa) duen laukia.** Zenbait kasutan erakundeei, txostenei... buruz arituko gara, eta esanguratsuak badira, horiei buruzko informazio laburra gehituko dugu lauki batean. 
- **Derrigorrezko material osagarria.** Gaietan landutakoa osatzeko eta zabaltzeko balio diguten artikulak, bideoak eta bestelako edukiak dira. PDF dokumentuak (irakurgaiak direnean) eta jatorrizko iturrietarako estekak jarriko dizkizuegu eskuragarri. 
- **Jarduera praktikoa.** Ataleko edukian eta material osagarrian oinarrituta, hausnarketarako jarduerak txiki bat proposatuko dizuegu, prestakuntza egiten ari diren beste pertsona batzuekin batera egiteko. 
- **Hautazko material osagarria.** Edukian sakontzeko interesgarriak iruditzen zaizkigun irakurgaiak edo materialak jarriko dizkizuegu eskuragarri. Hautazkoak direla diogu, horiek irakurtzea borondatezkoa delako eta ez ditugulako ebaluatuko. 
- **Streaming saio bat.** Prestakuntzaren barruan, saio ireki bat egingo da streaming bidez, Dalila Argueta lurraldearen eta giza eskubideen defendatzailearekin hitz egiteko. 

Ikastaroaren iraupena 30 ordukoa izango da.

Ikastaroa zabalik egongo da 2024ko maiatzaren 20tik ekainaren 23ra arte.

Ikastaroa gaztelaniaz izango da.

Ikastaroa egiaztatzeko ziurtagiria emango zaie ikastaroa gainditzen dutenei.

Prestakuntza gainditzeko eta ziurtagiria jasotzeko, baldintza hauek bete beharko dituzte ikasleek:

- Foroan parte hartu behar da.
- Planteatutako jarduerak egin behar dira.
- Ebaluazio-testak gainditu behar dira (*Test bakoitzeko gehieneko puntuazioa 10 puntukoa da. Test bakoitza gainditzeko gutxienezko kalifikazioa 6 puntukoa da.*)

Irakasle-taldea laguntzeko prest izango duzu prozesu guztian, eta ikastaroarekin zerikusia duen edozein gai kontsultatu ahal izango diezu.

Laguntzailea: